

HIK NOLA ESANGO HUKEK/N?



Beloki Guerra, Julian
EITB – Euskadi Irratia

1. AURKEZPEN GISA

Aspalditxoan nabil ibili –zailtasunez eta halabeharrez gogoetan, dena esan behar bada– komunikazioaren bidezidorretatik. Agian, Arantzazuko eskola giroak, Bitoriano Gandiagaren euskara ikasle izan izanak, komentuko *Gure Izarra* aldizkarian idazteak eta pulpitu eginkizunetan mutiko-mutikotan hasi beharrak, horrek guztiak eraman edo ekarri nau, ninduen, honetara, komunikazioaren eta hedabideen arlora. 1978an hasi nintzen esatari lanetan Donostiako Herri Irratian. Aurrez, Bilboko Construcciones Abandon bi hilabeteko kotizazioa baneukan ere, Donostiako Herri Irratia izan zen nire estreinako lantoki, hala gogorarazten dit Gizarte Segurantzako Kutxak erretiroa hartu ahal izateko zenbat falta zaidan galdezka joaten natzaionean. Hasiera-hasieratik, beraz, komunikazioa, irratigintza izan dut lanbide. Komunikazioaren arloan, euskara irakasle ere izan nintzen hasieran, Euskaltzaindiak D titulua ezarri berritan, baina hura, ozta-ozta zen ogibide osagarri. Oraintsu, komunikazio gaitasuna lantzeko ikastaroak ematen hasi naiz; ikasleek esan beharko dute modu probetxugarrian ari naizen ala ez.

Bada, ibilian nabil ezertan banabil, hitzaren bidezidor ugariotan. Behin berritan, tentazioari uko egiteko gauza ez eta, hemen uzten dizkizut, irakurle, gogoeta idatziok, MINTZOLAN 2010eko uztailaren 23an ikasle erne eta prestuen aurrean ahoz esanak, idatziaren galbahean iragazita. Han esanak, aurretik pentsatuak eta gero ere hausnarrean erabiliak, orain paperean jarrita, zurian beltz. Zertaz eta ahozkotasunaz hitz egiteko!

2. HIZKUNTZA GAITASUNA

Guraso garenok ongi asko dakigu ume bat hitz egiten hastea, ozta-ozta ulertzen dizkiogun estreinako hitzak entzutea, zein kontu kilikagarria, erakargarria eta bizipozezkoa izaten den. Berehala ohartzen gara, umea besotan hartuta, gozo-gozo hitz egin eta aho soinuak egiten dizkiogun aldiko, nola burua soinuaren jatorriaren bila mugit-

tzen duen, oraindik aurpegiak bereizteko adina ikusten ez badu ere, apenas bere gorputzaz jabetzen hasia oraindik. Eta, erantzun egin ohi du! Bere erara, baina erantzun. Hara zer nolako miraria, ume jaioberri horren burmuineko sinapsietan une horretan gertatzen ari dena! Nekez konpreni genezake kontrakorik; haurra mutu izatea, gura-soentzat horrek ekar lezakeen sufrikarioa, eurek hitz egin eta umeak erantzun ez! Ezagutzaren psikologiak eta, gero eta gehiago, ikerkuntza neurobiologikoeak ere, argi erakusten dute, nola hizkuntzarekiko sena amaren sabelean gauden une beretik hasten den naturalki garatzen. Haur jaioberriaren hasierako zortzi/hamar hilabeteak erabakigarriak dira adituen esanetan, geneetan txertaturik ekarritako hizkuntza gaitasuna naturalki garatzen joateko. Aldi labur horretan, hitzaren, hizkuntzaren isuri oparotik, ezarian-ezarian, maiz eta gozo edateak, elikatzeak, hizkuntzaren sena bizialdi guztirako egoki txertatua uzten du guregan: hizkuntza eta hizkuntzaren osagarriak, soinuak [fonemak] geure egin, hitzak [lexikoa, hiztegia] ikasten joan eta esaldiak sortzeko araugaitasuna. Jaioberritatik hasten da gizakia oso era eraginkor eta bizkorrean hizkuntza[k] bereganatzen, nagusiekiko eta beste ume batzuekiko harremanetan, inguruan entzuten duenari arreta jarri eta erantzuteko estrategiez naturalki jabetuz.

Ez da hori hizkuntzarekin bakarrik gertatzen. Hara zer irakurri diodan, oraindik orain, Suitzako neurologo ospetsu bati, Pierre Magistretti-ri, Lausanako Brain Mind Institute Eskola Politekniko Federaleko zuzendariari, estresarekiko portaeraz ari zela: *“Está claro que un recién nacido bajo gran estrés reaccionará de manera hiperactiva ante el estrés cuando sea adolescente y adulto”*. Giro lasai eta orekatuan hezia izateak baleukake, beraz, onurarik.

Bide beretik, hizkuntza gaitasunari dagokionean, agian bizialdi osoan ese-ak eta zetak bereizteko zailtasunak izan ohi dituenak [“*asak eta porruk bausku, dauskunak geuretzako duasku*”, entzun izan diet zegamarrei, segurarez txantxan], ez zituzkeen izango, burmuineko sinapsiak ziztu biziari garatzen zihoazkion aldi guztiz sentibera hartan, bestelako eredurik ezagutu izan balu. Larrainen edo Eskiulan jaio izan balitz, adibidez, xiberotarrek bere berezko ñabardurez ahoskatzen duten *ü* delakoa, ezin jatorrago ahoskatzen ikasiko zukeen, entzumena kilikatzen zion hizkuntza ereduak horretara moldatuta. Adibide txikiak besterik ez, hizkuntzaren jolasleku oparoan. Eredu kontua eta ereduaren imitaziotik eta jarraipenetik ikasten joateko gaitasuna, beraz.

Alde horretatik, inguru hurbilean entzuten duen hizkuntzaren, hau da, ama hizkuntzaren presentzia aberats eta oparoak berealdiko garrantzia du jaioberriengan, eta haurtzaroko lehen urteetan, hizkuntzaren sena, oinarria, zorua bizialdi osorako ongi finkatze aldera. Beste edozein hizkuntza, bigarren edo hirugarren hizkuntza ikasteko ere badaukan bezalaxe.

3. AHOZKOTASUNA

Gero, beranduxeago ikasten dugu irakurtzen eta ia aldi berean lehen letrak idazten. Honetan ere bat datoz ikerlariak: zenbat eta gaitasun natural hobe eta lortu hizketan,

orduan eta errazago ikasten da irakurtzen eta idazten ere, baina hori, ondo pentsatzen jarrita, oraintzeko kontua da gizadiaren historia luzean. Berandu batean ikasi genuen gizakiok aho soinuei irudia jarri eta idazten, eta idatzitakoa irakurtzen.

Homeroren garaikideak izan bagina, gurasoengandik eta inguru hurbilekoengandik jasotako hizkuntza gaitasuna izango genukeen bizialdi guztirako oinarri bakar eta sendo. Gero, agian, elkarteko *jakintsuengandik* entzun eta norberaren oroitzapenaren altxorrean gordetako hitz esanaren legea osatzen joango ginen. Eta horrela, gizatalde homogeneoetan hasieran, konplexuagoetan gero, belaunaldiz belaunaldi, ahoz aho transmititzen zen kultur ondareak osatzen joan ziren gizakiak.

Izan ere, hizkuntzaren transmisioak memoria du oinarri. Eta memoriak, hiru iturri. Batetik, bizipen pertsonalak, emozioen eta sentipenen eremuan. Bestetik, balioak, hurkoarekiko harremanen mundutik sortzen, garatzen eta arautzen joaten direnak. Hirugarrenik, ezagutzaren bidetik eraikitzen dugun mundu ikuspegia. Eta gaur besterik iruditzen zaigun arren, ez da letra idatzia ezinbesteko giza oroimenaren mundu ikuspegia osatzeko eta gizabanakoaren zentzu arrunta deitzen dugun hori eraikitzen joateko.

Gizakiaren historian ia oraintsu arte, bart arratsera arte nolabait esatearren (mendebaldeko kultur ondarearen historian, hogeita hamarren bat mende, asko jota), kulturen eta zibilizazioen aurrerabidea ahozko komunikazioan eta transmisioan oinarritu zen. Milaka eta milaka urte egin ditu gizadiak horrela, kulturaren ahozko transmisioan. Elkarri esaten ziotena eta norberak bere memorian jasotakoa hitzez, imintziaz eta errituz, belaunaldiz belaunaldi transmitituz. Beste gauza asko *irakurtzen* ikasiak ziren noski: eguraldiaren gorabeherak eta urtaroak, abereen portaerak, begiraden esanahiak, zuhaitzetako kimu berriak, izar eta planeta batzuen kokapena zeru oskarbian, Jainkoekiko beldurra eta haiengandiko babesa eta beste gauza asko, baina, dena ahoz aho transmititua. Alfabetoak eta letra idatziak geroago etorri ziren.

4. IDATZI ETA IRAKURRI

Ahoz esandako soinuak, hitz esana bokal eta kontsonanteetan bereizi, alfabetoa sortu eta kultur transmisioa idatziz jartzen hasi ginenez geroztik, akabo ahozkotasanak, bere funtziorik oinarritzkoen eta jatorritzkoen. Idatziak –zer esanik ez Gutenberg-en asmakizunaren ondoren–, abstrakziorako, kategorizaziorako eta pentsaera arrazionalerako leihoak zabaldu eta unibertsalizatu zituen, behin eta betirako, ahozko transmisio soilaren kontzeptua herri eta kultur komunitate gutxi batzuetara mugatuz.

Horregatik, gaur ahozkotasanaz hitz egiten dugunean, beste era bateko ahozkotasanaz hitz egiten dugu. Jendaurreko komunikazioaz hitz egin ohi dugu batez ere. Pertsonen arteko harreman publikoan sortzen den ahozko komunikazioaz. Eta, gaur egun, idatzizkoak, hizkera grafikoak eta irudiek osatzen dute gure ahozkotasuna, mendeetako kultura idatziaren errotan ehotako irina balitz bezala. Gure gizarte hurbilean

bertan, idatzizkoarekin harreman gutxien izan duenak ere –batere alfabetatu gabeak berak–, bertsopaper kantatuen iturria, katiximaren predikua, bestek irakurria edo, berrikiago, irratiz edo telebistaz eman dizkioten kontuena jaso bide du bere memoria. Eta memoriak, oroimenak bizi gaitu, nola gure baitan bizialdi osoan zehar etengabe sortzen dugun bakarriketan, hala elkarrekiko harremanetatik sortzen den narratiba kolektiboan. Kultur transmisioan eta zibilizazioen aurrerabidean.

Gaurko ahozkotasanak, beraz, idatzia eta irakurria, idatziz finkatua eta irakurritz ikasia ditu euskarri eta hala garatzen da era askotara giza harremanen konplexutasunean: erakunde eta elkarrekin barne eta kanpo komunikazioan, marketinean eta publizitatean, irakaskuntzan, hedabideetan eta, oro har, gizon-emakumeek elkarrekin errealitate zatiak partekatzeko, elkarri ulertarazteko ahalegina egiten duten guztietan. Horretan dago maiz korapiloa, eta askoren kezka; larritasuna zenbaitetan. Idazten eta irakurtzen erakusten zaigu eta ikasten dugu. Dugun neurriraino, noski. Baina, ahaztu-xeago daukagu, oro har, egoki hitz egiten ere erakustearena/ikastearena, gaurko ahoz-kotasunaren premiei egoki erantzuteko gaitzearena. Hizkuntzaren sena transmititzen zaigun garaian, jaioberritako zortzi/hamar hilabete bitarteko garai oparo horretan, inguru egokia, kontalari trebeak, maisu onak izan baldin baditugu, zorionekoak gu. Ondorengo guztian, letra idatzira lerratuago egongo bide baita gure hezkuntza, pertsonen arteko adierazkortasun eraginkorren estrategiak gartzera baino.

Hitz egin ere ez baitugu hainbeste hitz egiten. Irakurle, zeuk osa dezakezu, ondoko laukian agertzen den eredia jarraiki, zure eguneroko komunikazioaren mapa, goizean iratzarri, begiak ireki eta eguna martxan jartzen dugun unetik, gauean loak menderatzen gaituen arte. Norekin hitz egin dut gaur, zertaz, nola, non eta zenbat denbora? Egun askotako emaitza, uste baino murriztagoa izan ohi da norberaren hitz jarioari dagokionean. Hamaika/hamabi minutukoz, batez beste? Hitza, hitz egin beharra berezko duten lanbideetan ere, maiz, idatzia-irakurria izan ohi da oinarri eta uztarri. Uztarpe horretako komunikazioak, alabaina, zurruntasunetik gehiago izan ohi du, benetako harreman komunikazio eraginkorretik baino. Adituek gogorarazten diguten bezala, feedback eraginkorrik gabeko komunikazioa, hartzailearekiko sentiberatasun gutxikoa, antzutasun arrisku handikoa.

<ul style="list-style-type: none"> - Norekin: - Zertaz: - Noiz: - Nola: - Denbora: 	<ul style="list-style-type: none"> - Norekin: - Zertaz: - Noiz: - Nola: - Denbora:
<ul style="list-style-type: none"> - Norekin: - Zertaz: - Noiz: - Nola: - Denbora: 	<ul style="list-style-type: none"> - Norekin: - Zertaz: - Noiz: - Nola: - Denbora:
<ul style="list-style-type: none"> - Norekin: - Zertaz: - Noiz: - Nola: - Denbora: 	<ul style="list-style-type: none"> Eguna: Denbora, guztira:

5. IKUS-ENTZUNEZKO HEDABIDEAK

Eta irrati-telebistako kazetariok zer? Ba, kontu bertsuak. Gutako edozeinek, batez beste kontuan hartuz noski, gure aitona-amonek baino ehun bider gehiago irakurri du. Beraz, gure ahozkotasunak inoiz ez bezala du idatzia oinarri. Hizkuntzaren alderdi formalaz ongi jabetuak gara, agidanez. Baina, geu ere, irrati-telebistako kazetariok alegia, ez gara iristen lanbidera etxeko lan guztiak eginda. Sarri nabarmentzen zaizkigu edo sumatzen ditugu ahozko komunikazioari legezkiokkeen ezagutza eta trebetasuna behar adinean landu gabe daudela. Etxe eta auzo girotik, haurtzaroan eta gaztaroan maisu eredugarriak izan baldin baditugu, zorionekoak gu. Bestela, berriz, erretorika berriak ikastera behartuak, erabat atzendu baino lehen. Norengandik ikasia eta nork irakatsia ere badagoenez, gaitz erdi. Horretan ere, egia da, aurrera egin du euskarak, egin dugu euskaldunok.

Zorionez, adinean aurrea goazen bezala, neuronak galdu bai, baina burmuinaren malgutasunak errekurtsio berriak lantzen omen ditu, zirrikitu berriak irekitzen eta zenbat eta ariketa gehiago egiten dugun, orduan eta aukera gehiago, orduan eta berme gehiago, geureganatutako komunikazio gaitasunari osasuntsu eusteko ere. Eta horrek bizi du gaurko hedabideetako esataria, eguneroko jardunak eta entrenamenduak.

Entrenamendu horrek baditu bere trikimailuak. Nola idazten du irratiko kazetari esatarik? Hitz eginez. Bertsolariak bezala. Kateatzen goazen hitzei soinua jarritz. Ba ote da hala egiten ez duenik? Idatziaren ikuspegi espaziala bakarrik daukanik? Hala bada, erruki dut. Izan ere, idatzi ahala sortzen joaten garen doinu hori, kadentzia hori, bur-

muinean txertatzen joaten zaigu. Saiatuaren poderioz, ohitura, abilezia eta gaitasun bilakatzen da. Gure burmuinean zenbat eta txertatuago, osatuago, garatuago ahozko komunikazioaren gaitasunak kontrolatzen dituzten sinapsiak, orduan eta eraginkorrago aktibatzen dira komunikazio hori gauzatzen duen musika tresnaren doinuak, ahotsarenak alegia. Marvin Minsky-k, Massachusetts Institute of Technology – MITeko Inteligentzia Artifizialeko Laborategiaren sortzaileetako batek bere libururik ezagunean dioen zerbait jasoz, *“Our mind is a society of agents”*, berez berekoan aplika diezaiokegu hizkuntzaren erabilerari ere: *“Our language is a society of agents”*.

Berezkotasunetik gutxi dago hor. Herentzia genetiko oinarrizko bat, gorreria, dislexia, afasia, alexia, disgrafia eta halako ezintasun neurologikorik eza, hizkuntzaren transmisioaldi erabakigarri bat haurtzaroan, heziketa eta ikasketa egokiak, jendaurrean agertzea eta jardutea galaraz diezagukeen trauma edo esperientzia negatiboegirik eza eta, batez ere, zaletasuna eta entrenamendua bizitza osoan. Izaera eta nortasuna. Eta gehiago ere: lanbide/ogibidearen eskakizuna bera. Edo entzule, ikusle, irakurleari zor diogun begirunea, beste modu batera esanda. Begirune interesatua, alafede!

Praktikak, noski, nortasuna ematen du. Gure izaera janztera, txukuntzera, osatzera datorren nortasuna:

Eskolak, irakasleek, unibertsitateak, masterrek, muturra proiektu askotan sartzeak, geldikor xamarrek izateak eta jakin-minak, gauza askok, eragile askok itxuratzen dute gure nortasuna.

Irakurtzeak, irakurriaz hitz egiteak, ideiak jendaurrean adierazteak, gure ikusmoldea defendatzeak, gogoeta egiteak, hortaz guztiaz idazteak, idatzitakoa konpartitzeak... Horrek guztiak taxutzen du gure nortasun komunikatiboa.

Hizkuntza bera ere ez da ur geldiko putzua, nola eta, bakandua, isolatua eta hiltzorian ez badago behintzat. Ibaia da, bizia, eta zenbat eta biziago eta lasterrago, orduan eta zirrikitu gehiagotatik isurtzen da, orduan eta arro zabalagoa sortzen du eta orduan eta ur nahasketa handiagoa jasotzen du, nonahitik. Hala da euskararen kasuan, idatzizko eta ikus-entzunezko hedabideotan bizi duen susperraldian. Euskara libre dabil, hiztunak hala gabiltzan neurri berean. Lotuago, finkatuago, bateratuago nahiko lukeenik bada, baina libreago ibili nahiko lukeenik ere bai noski. Horregatik, euskarak, lehenik eta behin, jarduna behar du, egokitasun, zulentasun, txukuntasun, jatortasun, garbitasun eta antzeko beste tasun askoren gainetik, eta jarduna eragotz dezakeen edozertatik urrun ere.

EITBko hogeita zortzi urteotako [1982-2010] esperientziak hala erakusten du. Euskaltzaindiaren araugintza eta hiztegegintza (Orotariko Euskal Hiztegia) eta, oro har, beste hainbat hiztegi argitalpen eta zerbitzu, EITBko Euskara Zerbitzua bera, etxe barruko eta kanpoko formazio ekimenak, hizkuntzari buruzko gogoetaldiak, hizkuntzalari eta kazetari adituen ikerketa eta ekarpen idatzia... modu askotara elikatu

behar izaten da hizkuntzarenganako arreta (erabiltzaileon gaitasuna) hedabideetan. Orduz orduko gurrpil informatiboak, gaurkotasan biziko gaiei buruz unean-unean berri eman beharrak, ikus-entzunezko komunikazioan gaur bai eta bihar ere bai sortzen diren narratiba berrietara egokitzeak, etengabeko arreta eskatzen dute. Arreta horren adierazpide da hitzaldi/idatzi honen izenburutzat hautatu dudan galdera ere: *Hik nola esango hukek/n hau?*

Bidegileen eta bidelagunen galdera da. Arauemaile, hiztegi-gile eta gramatikalarien zereginetatik haratago eta berehalakoago. Geure eguneroko premiei erantzun behar-rak eragina. Euskaraz diharduten hedabide guztietan sarri egiten dena (hala delakoan –eta beharko lukeelakoan– nago!), maiz urduri jartzen bagaitu ere eta, zenbaitetan, eztabaida baten hasierako mugarrira jartzen badu ere. Azken finean, irratiz edo telebis-taz esateko zerbait idazten ari garenean, idazten ari garenera doinu egokia eman nahian gabiltzanean, norberak bere buruari egiten dion galdera da, eta korapiloa aska-gaitza egiten zaigunean, arnasbide, lankideekin partekatu nahi izaten dugun errealita-te zatia, komunikazioa: *Hik nola esango hukek/n hau?*

6. KOMUNIKAZIOAREN GILTZARRIAK


Irratian, ikus-entzunezko hedabideetan eta, oro har, jendaurrean hitz egiteko eta komunikatzeko zeregina suspergarria da. Plazagizon eta plazandre izate hori, erakar-garri zaio askori. Aldi berean, ordea, askori entzungo diozu baita ere, juxtu kontrakoa, hau da, larritasuna, ezinegona eta urduritasuna baino ez dizkiola sortzen halako ego-era baten aurrean suertatzeak. Ezintasun, ikara eta komunikazioaren eragozle diren barne agindu horiek modu askotara azaleratu eta nabarmendu ohi dira: arnasketa desegokia eta itolarria; hitz totelka hastea; masailak gorritzea; gehiegizko izerdi jarjaria, izerdi hotza zenbaitetan, kopeta, besape, esku eta abarretan... Ezinegonaren eta urdu-ritasunaren agerkari eta adierazle.

Bestelakorik ere izan ohi da, jendaurrean maiz jardun arren, urduri ala ez, bere jardun-naren gabeziez jabetzen ez denik. Horrelakoek besterengan sortu ohi dute ezinegona, auzo lotsa ez bada. Uste baino gehiagotan gertatzen da hori, norbera bere akatsez, bere gabeziez ez ohartzea. *Verbal graffitiak* dira adierazgarri esanguratsuenak: *eeee... ba bai... emm... bai, ezta..., beno, ez al da hala?...* eta gisa horretakoak, ahozko adie-razpidean oharkabeki eta maizegi txertatzen ditugunak. Baina, hitzezkoak bezainbat keinuzkoak ere, hau da, begirada nahiz begi keinu errepikatuak, esku imintzio, gorputz mugimendu eta abar... Esan nahi ez genukeenaren lekuko temati, kontraesanen sala-tari, adierazkortasun eraginkorraren etsai. Bitoriano Gandiagak Oteizaren jardunari poetikoki esana baliagarri zaigu hemen: *tiriki tauki tauki, mailuaren hotsa...* hala nabarmendu ohi dira norberaren komunikazio gaitasuna uhertzen duten agerpen inkontzientek, benetako adierazkortasunari mesederik egiten ez diotenak.

Komunikazio publikoan, berdin irakaskuntzan nola hedabideetan, sermoigintzan beza-la proselitismo politikoa praktikatzen, badira sistematikoki aintzat hartu behar izaten

diren kontuak, jarduerak, jendaurreko komunikazioak ezinbesteko dituenak. Berdin hitzaldi bat prestatzeko orduan, telebistarako erreportajea antolatzerakoan nahiz irrati-magazin baterako albatea lantzerakoan. Pausoz pauso, ez beti aurrerabidean, joan-etorri ugari eginez sarri, baina ezinbestean, bete beharrekoak eraginkortasunez komunikatzeko helburua bete nahi baldin badugu.

Esan behar dugunaz gogoeta egin, dakiguna ziurtatu, diskurtsoari egitura egokia eman, oinarrizko informazioa antolatu, idatziari doinua jarri, denbora neurria hartu, ulergarritasuna bideratuko duten baliabide estilistikoak landu, esaten hasi eta esandakoa entzun edo entzunarazi, ekimen komunikatibo praktikorako ariketak eta entseguak egin, hori guztia ez da izaten berezko dohainen bat-bateko loraldia. Honako lauki honetan bildu nahi izan ditugu, gauzatu nahi dugun ahozko komunikazioa benetan eraginkorra izango bada, aurrez, ezarian-ezarian, txanda-pasa lasterrik gabe bete behar izaten diren urratsen diagrama, ahozkotasunarekiko kezka beti presente dela:



Esan nahi dugun hura nori esan nahi diogun, non eta nola esan behar diogun, zehazki zertaz izango den, diskurtsoa nola antolatuko dugun, non kokatuko garen, zenbat denboraz jardun, jendearen arreta nola erakarri, esandakoaz benetan jabetu diren baieztatu, irribarrea edo txaloak eragin, haserrarazi, entretenitu, ilusioa piztu, leialtasuna sendotu... galdera asko egin behar izaten dizkio bere buruari, norberaren kolkora-ko jarduteko arriskua ekidin eta jendaurrean eraginkor hitz egin nahi izaten duenak

Galdera horiei nola erantzun? Batez ere, nola erantzun, besterik gabe ere jendaurrean hitz egite hutsak sor diezazkigukeen estatusunak areagotu eta barne korapiloak aska-gaitzago bihurtu gabe? Komunikatu behar izatetik ez komunikatzera, uste baino arinago egin ohi baita bidea, oharkabean. *Komunikazioaren giltzarriak* deitutako laukian bildu ditugu eginkizun eta ariketa gai garrantzitsuenen ildo nagusiak.



Irratian, telebistan, ikus-entzunezko hedabideetan, legebiltzarrean, bilkura jendetsuetan, komunikazio publikoan, oro har, jendaurrean ahoz egiten ditugun adierazpenetan, ia beti, esan nahi duguna hautatu, informazioa bildu eta lehen egituraketa baten ildoetara segituz, daukagun informazioa eta ezagutza idatziz antolatzeko eta zehazteko ahaleginetik abiatzen gara. Oso gutxi dira gure artean, inor baldin bada, oroimenaren eta komunikazioaren arteko zubigintza ahozko transmisio hutsean oinarrituta egiten dutenak, idatziaren euskarriari muzin eginez. Badirenak, kontalariak dira, gurasoengandik, adiskideengandik, beste batzuek jasotako pasadizoak eta bizipenak, eta norberarenak noski, idatziaren galbahean pasatu gabe ere, behin eta berriro, euren oroimenean betirako hitzez hitz zizelkatuak baleude bezala, beti berdin edo modu bertsuan kontaktzen dituztenak. Eta idazten hasten direnean ere, hitz egiten duten bezalaxe idazten dutenak. Badira noski. Aita Zavalaren *AUSPOA* bildumako idatzi asko, horren lekuko. Besteak beste.

Idatzizkotik idatzizkora irauliz bizi gara gehiago gaur egun. Nola irratiko tarteetan, hala telebistako gidoigintzan, politikarien mitinetan, irakasleen hitzaldietan, eta abarretan. Nahiz eta teknologia berriei esker, horman proiektatutako letra idatzien eta irudien bitartez, ahozko komunikazioari modu berriak irekitzeko bidea sortu den, oraindik ere maizegi topo egiten dugu komunikazio publikoan, jendaurreko hizketaldietan, paperean jarria hitzez hitz irakurtzen duen jendearekin. Baita gure lanbidean ere. Eta irakurle ona izatea, esatari ona izatea bezain zaila da, zailagoa ezpada. Nolanahi ere, irakurle esatari ona, komunikatzaile bikaina izan nahi duenak, ahoz esateko testu egokiak sortzen gaitu beharko du, ezinbesteko baldintza. Nekez lortuko baitu besterenak irakurritz bakarrik.

Komunikazioaren giltzarriak oinarritzat hartuta eman ohi ditugun ikastaldietan, edukien alderdi formalean eta informatiboan baino gehiago, "esateko idatzi" behar horretan jartzen dugu arreta, hau da, entzulearen belarria idatzira erakartzeko gaitasun enpatikoak dituen eskakizun estilistikoetan eta baliabide erretorikoetan. Era berean, besteekiko, hurkoarekiko komunikazioa onbideratzeko orduan harreman alderdiak duen garrantzi erabakigarria. BIRKENBIHL, Michael-ek *TRAINING THE TRAINER* liburuan esaten duena gogoan hartuz: *"Los dos niveles de cada comunicación, el nivel del contenido y el nivel de la relación, corresponden a un lenguaje muy especial: un lenguaje matemáticamente correcto y un lenguaje 'icónico' y cargado de emoción"*. Bigarren hori ahazteak maiz logikaren eta eduki formalen eraginkortasuna hutsean utz dezakeelako.

Bestalde, ez ditugu ahaztu edo gutxietsi behar, idatzizko oinarritik abiatutako komunikazio ekimenari, ulergarritasuna, sinesgarritasuna, hurbiltasuna eta konfiantza areagotzen laguntzen dioten alderdiak, hala nola, ahotsaren erabilera zaindua, ñabardura prosodikoak lantzea, isiluneen kudeaketa eraginkorra, gorputz adierazpidearen naturaltasuna eta begiradaren hizkera erabakigarria.

Ardura, jakin-mina eta ariketa, azken finean, Timothy J. Koegel-engandik jaso eta geure ikuspegira moldatu ditugun sei ezaugarriok geure egiteko. Esan behar duena ongi, argi eta garbi egituratu behar du komunikatzaile onak. Zalantza zeinurik gabe, seguru eta, aldi berean, erakargarri, bihotzetik hitz egin behar du. Entzulearen errespetua eta miresmena irabaziko baldin baditu, sinpatiaz onbideratu behar ditu harremanak. Naturaltasunak sortu ohi du konfiantza. Oinarri-oinarrian beti bi eginkizun, eta beste hainbeste aholku, despedida modura. Bat: zenbat eta gehiago jakin entzuleez, zure mezuaren hartzaileaz, are eta errazago gainerako eginkizun guztiak. Bi: ez hutsegin gehiegizko konfiantzagatik eta utzikeriagatik, elkarri eskua emanda doaz, biak ala biak, norberaren kalterako beti.

7. BIBLIOGRAFIA

"Jendaurrean Hizlari" – GARZIA, Joxerra
Edit. ALberdania - 2008

"¿Cómo aprende el cerebro?" – BLAKEMORE, Sarah-Jayne / FRITH, Uta
Edit. ARIEL – 2007

"Una historia de la escritura" – MANGUEL, Alberto
ALIANZA Editorial – 1998

"La musa aprende a escribir" – HAVELOCK, Eric A.
Edit. Paidos – 2008

"The Society of Mind" – MINSKY, Marvin
Edit. Simon & Schuster Paperbacks, 1988

"Claves para hablar en público" – ATKINSON, Max
Edit. GESTIÓN 2000 – 2004

"The exceptional presenter" – J. KOEGEL, Timothy
Edit. Greenleaf Book Group Press – 2007

"Será mejor que lo cuentes" – NUÑEZ, Antonio
Edit. Empresa Activa – 2007

"El filósofo entre pañales" – GOPNIK, Alison
Edit. Temas de Hoy – 2010

"Formación de formadores" – BIRKENBIHL, Michael
Edit. Thomson – 2006

"La ley de la conexión" – LOSIER, Michael
Edit. Planeta – 2009

"La comunicación no verbal" – DAVIS, Flora
Alianza Editorial - 1976